

ASPALDIKO LAUAXETA GOGORATUZ

Gure haurtzaro eta gazte-denboran ezin genien garbi galdetu gu baino zaharragoak zirenei zer gertatu zen Euskal Herrian eta Espainian 1936-39 bitarteko gerra zibilean. Askoz gutxiago urte horietan zer pasatu zen hemen bertan, Oñatin: Izan ere, frankistek agintean sendo jarraitzen zutenez, ofizialki irabazleen bertsioa bakarrik zabaldu baitzitekeen. Hortik kanpora, zerbait gehiago jakin gura zuena susmagarri bihurtzen zen, besterik gabe, eta informatzeko bere ahalegin horri eusten bazion, disgusturen bat bereganatzeko arrisku latzean jartzen.

Giro itogarri haren ondorioz, familiarik gehienetan (baita Francoren aldekoak ez zirenen askotan ere) politika-gaiak aipatu ezinezko tabuak ziren. Beldurraren eragina zen batetik, eta anaien arteko gatazka zital hartan gertatutako izugarrikeriak ahazteko premia bestetik. Eskolak ere ez zigun asko lagundu: maristekin, adibidez, unibertsitate zaharreko patio dotorean goizero Espainiako bandera monarkiko gorri-horia jaso behar izaten genuen, *¡Salve, bandera de la patria, Salve!* kantatuz; edota Antonio eta Gonzaloren amaigabeko ibilerak kontatzen zituen *El Libro de España* ideologizatua geneukan irakurgai nagusitzat.

Horregatik, galtzaileen politikaz eta gerraz genekien apurrak isilean eta ezkutuan ikasitakoa zen. Eta arlo horietan gure ezjakintasuna nabarmena baldin bazen, euskarari eta euskal kulturari dagozkien gaietan genituen hutsune eta gabeziak ere ugariak eta sakonak ziren.

Dena den, nik suerte pixka bat eduki nuela aitortu behar dut: 16-17 urterekin Anton Garro Donostiako seminarioko irakasleak euskarazko literatura bazela erakutsi zigun; ez klaseetan emandako irakaspeneekin, baizik eta berak ordurako osatua zeukan euskal liburutegi partikular bikainaren bitartez.

Biblioteca horretan deskubritu nituen, besteak beste, XX. mendeko lehen hamarkadetan euskara landu zuten idazle garrantzitsuenetariko batzuk: esate baterako, Domingo Agirre, Jose Mari Agirre *Lizardi*, Nikolas Ormaetxea *Orixe* eta Esteban Urkiaga *Lauaxeta*. Urte haietan, ez zen erraza azken bi idazle hauen lanak eskuratzea.

Baina, agian, orduko unerik goxoena Bilbon bizi izan nuen, Correo kaleko Verdes-Atxirika liburu dendan Urkiagaren olerki-liburu biak erosi ahal izan nituenean: *Bide barrijak* eta *Arrats-beran*, hiru hamarkada lehenago hantxe

bertan argitaratu zirenak. Esan gabe doa, oraindik gordetzen ditudan ale
preziatuok erdi ezkutuan ekarri zizkidatela denda ostetik, artean lanean
ziharduen inprimategitik, hain zuzen ere.

JERARDO ELORTZA

2005ean argitaratua, Potxo Argitaletxea. Patxi Hipolito